

B FASEA – GURE GJH KOMIKIA SORTZEN (5 SAIO)

HASI AURRETIK

Jarraian dituzu saioekin hasi aurretik kontuan hartu beharreko eta prestatu beharreko bost (5) urrats nagusiak:

1. Irakurri komikiak sortzeko gida didaktikoa: Irakurri arretaz eta deskargatu (komiki-ekin.eus) komikiak sortzeko gida didaktikoa eta ezagutu bertan proposatzen diren pausoak. Horrela, ikasleei laguntza egokia eman ahal izango diezu istorioaren diseinuan, egiturari, komunikazio grafikoan eta edukiaren garapenean.

2. Antolatu taldeak eta GJHen banaketa: Antolatu ikasleak 3-5 laguneko taldeetan. Ondoren, erabaki talde bakoitzak zein GJH landuko duen.

- Talde bakoitzak GJH desberdin bat landu dezake, gai-aniztasuna sustatzeko.
- Talde batzuek GJH bera landu dezakete, baina ikuspegi edo arazo desberdinak jorratuz.

Gomendagarria da talde bakoitzak landuko duen gaia aurrez zehaztea, saioetan denbora hobeto aprobetxatzeko.

3. Prestatu baliabideak eta informazio iturriak:

Materiala (ikasleak)

- Komikiak sortzeko gida didaktikoa.
- Zirriborro-orriak.
- Koloreztatzeko eta idazteko materiala.
- Ordenagailua edo tableta informazioa bilatzeko.
- Informazio fidagarria eskuratzeko baliabide digitalak edo dokumentalak.
- Ebaluazio tresnak: autoebaluazio fitxa, koebaluazio fitxa eta kontrol-zerrenda.

Informazioa bilatzeko orduan, komeni da ikasleei aurrez hautatutako iturri fidagarriak eskaintzea.

Materiala (irakaslea)

- Komikiak sortzeko gida didaktikoa.
- Ebaluazio tresnak: errubrika analitikoa eta kontrol-zerrenda.

4. Aztertu aurreko fasean ikasitakoa: Fase hau hasi aurretik, komeni da aurreko fasean landutako komikiak eta GJHen inguruan ikasitako ideia nagusiak gogoratzea. Galdera orientagarriak:

- Zer ikasi genuen GJHei buruz?
- Zer elementu dituzte komiki eraginkorrek?
- Nola transmititzen dute komikiek mezu sozial edo zientifiko bat?
- Zer baliabide erabil ditzakegu gure komikian mezua argi azaltzeko?

5. Prestatu ebaluazio tresnak: Ziurtatu ebaluazio-tresnak (komiki-ekin.eus/ebaluazioa) ezagutzen dituzula eta prest dituzula, ikasleen lana eta lortutako konpetentzia-maila modu koherentean ebaluatzeko. Hauek dira erabiliko ditugun tresnak:

- Errubrika analitikoa (irakaslea)
- Ahozko aurkezpenaren kontrol-zerrenda. (irakaslea eta ikasleak)
- Autoebaluazio fitxa (ikasleak)
- Koebaluazio fitxa (ikasleak)

Ziurtatu ikasleek ere ezagutzen dituztela ebaluazio-irizpide nagusiak. Horrek lagunduko die ikasleei hasieratik ulertzen zer espero den haien lanetik eta nola baloratuko den sormen-prozesua zein azken produktua.

Oharra: Fase honetako helburua ez da soilik komiki erakargarri bat sortzea. Garrantzitsua da istorioak aukeratutako GJHaren arazoak, zergatiak, ondorioak eta konponbide posibleak modu ulergarrian, sortzailean eta zientifikoki egokian islatzea. Irakasleak gida didaktikoko orientazioak bere ikasgelaren ezaugarrietara eta ikasleen beharretara egokitu ahal izango ditu..

ZER EGINGO DUGU?

Ikasleek GJH bat oinarri hartuta euren komiki propioa sortuko dute. Horretarako, arazo bat identifikatu, informazioa bildu, pertsonaiak eta istorioa diseinatu, komikia sortu eta azkenik ikaskideen aurrean aurkeztuko dute.

Helburua da GJHen inguruan ikasitakoa sakontzea, sormena, pentsamendu kritikoa, lankidetzak eta komunikazioa garatzea, eta ezagutza zientifikoa modu esanguratsuan aplikatzea.

Iraupena: 5 saio.

Taldeak: 3-5 ikasleko taldeak.

1. SAIOA (HASIERAKOA)

1.1. KOMIKIAREN GIDA AZTERTZEA ETA INSPIRAZIOA

Denbora: 10 minutu

Ikasleek komikiak sortzeko gida aztertuko dute.

Irakasleak azalduko ditu:

- Komiki baten oinarrizko elementuak.
- Istorio baten egitura.
- Pertsonaien diseinuaren garrantzia.
- Komikiek mezu sozialak transmititzeko duten ahalmena.

Inspirazio gisa, aurreko fasean landutako komiki batzuk berrius daitezke.

1.2. GJHAREN ETA ARAZOAREN HAUTAKETA

Denbora: 15 minutu

Talde bakoitzak lantuko duen GJHa aukeratuko du.

Ondoren, ikerketa labur bat egingo du:

- Zer arazo jorratzen du?
- Zergatik da garrantzitsua?
- Zein ondorio ditu?
- Zein konponbide proposatzen dira?

Helburua izango da komikiaren oinarri zientifikoa eraikitzea.

1.3. IDEAZIOA ETA GIDOIAREN LEHEN ZIRRIBORROA

Denbora: 25 minutu

Talde bakoitzak erabakiko du:

- Nor izango den protagonista.
- Zein izango den arazo nagusia.

- Nola garatuko den istorioa.
- Zein izango den amaierako mezua.

Saioaren amaieran talde bakoitzak bere komikiaren ideia nagusia aurkeztuko dio irakasleari.

2. SAIOA (KOMIKIAREN DISEINUA)

2.1. GIDOIAREN GARAPENA

Denbora: 20 minutu

Elkarrizketak, egoerak eta sekuentziak definitu.

2.2. BINETEN DISEINUA ETA ZIRRIBORROA

Denbora: 25 minutu

Komikiaren egitura bisuala planifikatu:

- Bineten banaketa.
- Pertsonaien kokapena.
- Testuen kokapena.

2.3. FEEDBACK FORMATIBOA

Denbora: 5 minutu

Irakasleak taldeekin bilduko da:

- Edukiaren egokitasuna aztertzeko.
- GJHaren tratamendua egiaztatzeko.
- Hobekuntzak proposatzeko.

3. SAIOA (KOMIKIAREN EKOIZPENA)

Denbora: 50 min

Ikasleek komikia osatzen hasiko dira: marrazkiak, elkarrizketak, Azalpen-koadroak eta baliabide grafikoak.

4. SAIOA (KOMIKIA BUKATZEN)

4.1. KOMIKIAREN AZKEN BERTSIOA

Denbora: 40 min

Taldeek komikia amaituko dute: arrazkiak bukatu, Koloreak gehitu, Testuak zuzendu eta Diseinua txukundu.

4.2. ENTSEGU ETA PRESTAKETA

Denbora: 10 min

Aurkezpena prestatuko dute:

- Nola azalduko duten komikia.
- Zer GJH landu duten.
- Zer ikasi duten prozesuan.

5. SAIOA (AMAIERAKOA)

5.1. KOMIKIEN AURKEZPENA

Denbora: 35 min

Talde bakoitzak bere lana aurkeztuko du:

- Komikiaren titulua.
- Landutako GJHa.
- Istorioaren laburpena.
- Azaldutako arazoa.
- Proposatutako konponbidea.
- Ikasitako alderdi nagusiak.

Talde bakoitzaren aurkezpenaren ondoren galdera labur bat egiteko aukera egongo da.

Gomendioa: Komikiak aurrez digitalizatzea, aurkezpenetan pantaila handian euskarri bisual gisa erabiltzeko.

5.2. GALLERY WALK

Denbora: 5 min

Ikasleek komiki guztiak ikusiko dituzte eta iruzkin eraikitzaileak utziko dituzte.

5.3. HAUSNARKETA KOLEKTIBOA

Denbora: 10 min

Irakaslearen gidaritzapean:

- Zer ikasi dugu GJHei buruz?
- Zer izan da zailena?
- Zer egin dugu ondo taldean?
- Zer iruditu zaizue komikien bidez ikastea?
- Komikiekin lan egiteak GJHa hobeto ulertzen lagundu dizue? Zergatik?
- Zer gustatu zaizue gehien komikia sortzeko prozesuan?
- Zer izan da zailena komikia prestatzean?
- Etorkizunean beste gai batzuk lantzeko komikiak erabiltzea gustatuko litzaizue? Zergatik?
- Zer hobetuko zenukete jarduera honetan?

3.5. EBALUAZIOA

- Heteroebaluazioa – **errubrika analitikoa**: komikiaren kalitate orokorra eta ahozko aurkezpenaren zorrotasuna ebaluatzeko. (KE1, KE2, KE3, KE4, KE5 eta KE6; irakaslea).
- Koebaluazioa – **koebaluazio fitxa**: beste taldeen ahozko aurkezpena, komunikazioa eta mezuaren argitasuna baloratzeko. (KE4; ikasleak).
- Autoebaluazioa – **autoebaluazio fitxa**: ikasleak bere parte-hartzea, ikaskuntza-prozesua, informazioaren ulermena eta jasangarritasunarekiko hausnarketa baloratzeko. (KE1, KE2 eta KE5; ikaslea).
- Ahozko aurkezpenaren **kontrol-zerrenda**: ahozko komunikazioa eta aurkezpenaren antolaketa baloratzeko. (KE4; irakaslea eta ikasleak).